



# Elkarbizitzarako patio hezitzailea

**PROZESU PARTE-HARTZAILEA**  
jarraipen txostena

**Odon de Apraiz Ikastola**  
Gasteiz

nondik

# ELKARBIZITZARAKO PATIO HEZITZAILEA

## Prozesu parte-hartzailea

ODON DE APRAIZ IKASTOLA







ODON de APRAIZ Eskola

CEUSARALIA

LAGUNKAS

## **Aurkibidea**

Sarrera

Patioa gaur egun

Prozesu parte-hartzailea - Egituraketa

Egungo egoeraren analisisa

Prozesu parte-hartzailea - Ekarpenak

Ikasleak

Irakasleak

Gurasoak

Ondorioak

nondik



## Sarrera

Patioa eskola ingurune den horretan, ikasteko eta erlazionatzeko espazioa da, eta askotan garrantzirik eman ez bazaio ere, honen konfigurazioak eragin zuzena du erabiltzaileengan. Jolas-inguruneak, beraz, ikas-irakas agertoki dira hezkuntza eraikinetan, elkarbizitarako espazioak direlarik. Odon de Apraiz Ikastolan, ikastolako guraso elkarteak eta zuzendaritzak bultzatuta, interbentzio ezberdinak egin izan dira patioan. Hemendik aurrera, ordea, modu estrategiko eta egituratuan definitu nahi dira etorkizunera begira planteatzen diren eraldaketak, patioa ingurune hezitzaile bihurtuz, hezkidetza, elkarbizitza eta naturarekiko harremana landuz eta ikastolak auzoko gune aktibo gisa duen papera indartuz.

Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoen parte-hartzearekin, honela egituratu da prozesua hiru atal nagusitan:

1. Patioaren erabileraren behaketa, bertan sortzen diren jolas eta haurren arteko erlazioei dagokienean.
2. Patio ezberdin bat irudikatzeko saio parte-hartzailea LHko 3.mailatik hasi eta LH 6.mailara bitarteko ikasle-talde ordezkari batekin.
3. Espazioaren konfigurazioak ekintza pedagogikoak ahalbidetzeko izan dezakeen gaitasunaren inguruko formazio saioa + eraldatuko diren inguruneak ezagutu eta beraien ikuspuntua jasotzeko, irakasleekin eta familiekin garatu den prozesu parte-hartzailea.

Prozesua amaitu ondoren, dokumentu honen bidez jasotzen dira prozesu parte-hartzailearen egiturakea, egungo egoeraren analisia, prozesuan zehar jaso diren ekarpenak eta horietan oinarrituta hurrengo pausuak emateko ateratako ondorioak. Dokumentu honek, ideia-proiektu bat garatzeko abiapuntu izan nahi du.

**Patioa gaur egun**





## **Prozesu parte-hartzailea Egituraketa**

Odon de Apraiz ikastolako patioaren inguruko hausnarketa abiatzeko, patioaren egungo erabileraren behaketa, irakasleei zuzendutako formazioa, eta ikasle, guraso eta irakasleak protagonista izan dituen prozesu parte-hartzailea garatu dira.



## Behaketa

Gaur egungo patioaren konfigurazioa, ezaugarri morfologikoak eta erabilera aztertu dira. Horretarako, bi behaketa mota egin dira. Alde batetik, espazioa hutsik dagoela, ikuspuntu arkitektoniko batetik aztertu da, eta, bestetik, patioaren erabileraren diagnosi bat egin da hurrek bertan gauzatzen dituzten jolasak behatuz. Horretarako, eskolako-patio ordu bat aukeratu da egunerokotasuna jaso eta dokumentatu ahal izateko.



## Formazioa

Prozesu parte-hartzailea hasi aurretik, patioaren eraldaketa bidean eragile aktibo izango direnei zuzenduta, arkitekturaren eta pedagogiaren arteko erlazioaren inguruko formazio saioa garatu da. Bertan landu diren edukiak ondorengoak direlarik:

- Pedagogiatik arkitekturara, eta alderantziz.
- Espazioa faktore pedagogiko gisa lantzeko oinarriak; espazioaren definizioa eta elementu artikulatzaileak.
- Jolas-ingurune inklusiboak.
- Espazioa erronka sortzaile: arriskuak, jolasa eta natura.
- Adibideak





## Prozesu parte-hartzailea

Odon de Apraiz Ikastolako patioa elkarbizitarako ingurune hezitzaile bihurtzeko proiektua gauzatzeko, garrantzitsua da haurren, gurasoen zein irakasleen ikuspuntua aintzakotzat hartzea. Hori dela eta, prozesu parte-hartzaile aktibo bat planteatu da. Hala, erabiltzaileek espazioa bizitzeko duten modua ulertzea, ikasle, irakasle eta familien ikuspuntua jasotzea, beraien kontzientziak eta inplikazioa indartzea eta proiektuarekiko interesa piztea bilatu da prozesuan zehar garatu diren saio guztietan.

## Metodologia

Saio parte-hartzaileetan jarraitu den metodologia sortze diseinu prozesuetan oinarritu da, eta parte-hartzaileek, baliabide ezberdinak erabiliz (irudikapenak, maketak, etab.), proposamenak egiteko aukera izan dute. Alde batetik, egunerokotasunean ematen diren egoeretatik abiatuta, ingurune ezberdinak irudikatu dira, eta, erabiltzaileek espazioarekiko bizi duten erlazioa aztertu da. Bestetik, egoera eta agertoki berriak ere planteatu dira, eta elkarlanean zehaztu dira espazioaren behar espezifikoak.

# diseinatu

1. fasea

# eraldatu

2. fasea

1  
**diagnosia**

Aurkitu!  
Ezagutu!  
Berreskuratu!

2  
**sorkuntza**

Berrerabili!  
Sortu!  
Irudikatu!

3  
**programazioa**

Adostu!  
Erabaki!  
Adierazi!

4  
**antolaketa**

Lagundu!  
Bildu!  
Prestatu!

5  
**eraldaketa**

Elkartu!  
Konpondu!  
Eraiki!

6  
**erabilerak**

Erabili!  
Bizi!  
Ikasi!





## **Egungo egoeraren analisi**

Patioaren behaketatik abiatutako ondorioak  
aldagai ezberdinen arabera

# Egungo egoera

Odon de Apraiz Ikastola auzoan







64%



ERAIKINAK


PATIOA



**AZALERA**

## Egungo egoera


Azalera




**AZALERA**

# Egungo egoera

Zirkulazioa



ERAIKINA	—	440 ml
HESIA	- - - -	215 ml
HESIA+ZUHAITZA	-•-•-	65 ml
HESI ALTUA	•••••	56 ml
BARRUKO HESIA	- - -	12 ml
ALTUERA	—	150 ml
EZBERDINTASUNA		



**MUGAK**

# 2,7%




NATURARIK GABE

NATURA






# 17%



ITZALIK GABE

ITZAL NATURALA  
ITZAL ARTIFIZIALA




# ITZALA

# 5,9%



GOGORRA


BIGUNA (NATURALA)  
BIGUNA (ARTIFIZIALA)



# LURRA

# Egungo egoera

Espazioaren antolaketa



## ESPAZIOAK

# Egungo egoera


Elementu artikulatzaileak



**ELEMENTUAK**

# Erabilera


Haurren kokapena




**HAURREN KOKAPENA**



- |                                                                                                          |                                                                                                       |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <br>motorra             | <br>aurre-sinbolikoa |
| <br>sinbolikoa          | <br>manipulatiboa    |
| <br>jolas sentsoriala   | <br>jolas arautua    |
| <br>eraikuntza jolasak | <br>ez dago jolasik |



## JOLASAK



# Erabilera

## Behaketatik jasotakoak

Haurren sailkapena, adinen arabera espazio bat edo beste erabiltzen dute.

Erdiguneko espazioaren konkista, protagonistak "futbolera" jolasteko baumena dutenak dira.

Patioak korrika intetzera gonbidatzen ditu ikasleak, batez ere mutilak, behin korrika aske egin ondoren, jolas ezberdinak sortzen dira, eta neska gehientsuenak izkintara joaten dira.

Jolas txikiak, esperimentazioa, jolas simbolikoa, bestelak, jolas motorra, izkintan, espazioaren ertz eta txokotan agentzen da.

Helduenera portxoa egoteko leku bezela erabiltzen dute, talde txikituan berba egiteko, lasai egoteko...

Txikienera espazio mugatuak dituzte, nagusienera espazio horiek ere erabili nahi dituzte, babestuagoak diralako.

Txoko babestuen bila, izkina itsu eta arriskutsuetarako joera dute haur askok.

Haurrek oso bannerratuta dute patioak nola funtzionatzen duen, eta egitura hori errespetatzen dute (debekuak, nonk eta noiz jolastu dezakeen, non egon daitekeen non ez...) Muga horietan mugitzen dira, interakzio eta jolas berriak sortu gabe.

Patioak eskaintzen dituen elementu artikulatzaile urrien inguruan interesa agertzen da, koto ezberdintasuna, eskailerak, kolunpioak...

Esperimentaziorako, manipulaziorako eta jolas sentzorialerako balabiderik izan ez arren, dagoena aprobetxatzen dute (pinuen hondarrak, lurra, zikinkerak, hostoak...)

Utko txikienera patio handia irakiegia somatzen dute, eta espazio txikiagoetara gerturatzen dira, babestuago sentitzera, beraien espazioa konkistazera.

Izkintan sortzen diren jolas ezberdinetan talde txikiagoak eta neska eta mutilak nahastutakoak agertzen dira.

Kolunpioetako egiturak babesleku gisa ere erabiltzen dira, barruan margotzen egoteko, jolas lasaia...

**Prozesu parte-hartzailea**  
**Ekarpenak**





## IKASLEAK





**1.saioa****DIAGNOSIA + SORKUNTZA + PROGRAMAZIOA**

SAIOAREN IRAUPENA: 2 ordu

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: LH 3-LH 6 bitarteko 25 ikasle.

- 5'      Aurkezpena: Zergatik eraldatu nahi da gure patioa?
  
- 10'     Patioaren erabileraren behaketan ikusitakoaren inguruan hausnarketa ikasleei egindako galderen bidez.
  
- 10'     Patio ezberdinen irudien analisia ikasleekin. Nola sentituko ginateke horrelako espazio batean?
  
- 60'     Dinamika I: ametsetako jolas-inguruneen irudikapena talde txikietan egindako maketen bidez.
  
- 20'     Talde bakoitzak adostutako ideiak eta maketan adierazitako jolas-inguruneak aurkeztuko ditu.
  
- 15'     Guztion artean, ikastolako haur guztientzako egokiak eta aproposak izango diren baliabide eta jolasak aukeratzeko ditugu, egindako maketatan oinarrituta.





























## IRAKASLEAK



**1.saioa****FORMAZIOA - DIAGNOSIA**

SAIOAREN IRAUPENA: 2 ordu

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 28-30 irakasle

10' Aurkezpena: Diseinu-prozesuaren egituraketa

10' Dinamika I: espazioen gogorapenak  
Gogorapenen bidez (usainak eta soinuak), haurtzaroko espazioetara joango gara

60' Eduki teorikoa

Aurkezpena – Diseinu prozesuaren egituraketa  
Pedagogiatik arkitekturara, eta alderantziz  
Arkitektura pedagogikoaren oinarriak  
Jolas-ingurune inklusiboak  
Espazioa erronka sortzaile; arriskua, jolasa eta natura30' Dinamika II: egunerokotasunaren mapa  
Nola erabiltzen dugu gaur egun patioa? Zein arazo ditu? Zein gauza mantendu nahi ditugu? Zer aldatu nahi dugu.  
Baliabidea: ortofotoplanoa + ekintzak/arazoak taula modura + kezkek/ardurak beldurrak...  
Lehenik taldeka landuko da, eta ondoren, identifikatu diren arazoak amankomunean jarriko dira mapa sortuz.10' Dinamika III: zein erronka planteatzen dizkiot eraldaketari?  
Patioaren erabilera ezberdin batek sortzen dituen kezken inguruko hausnarketa egingo da.





## Zer espero dut?

- » Patio egoki bat lortzea, espazio edo gunea ezberdinekin non ikasle “futbolariak” ez diren protagonista nagusiak.
- » Adin guztietako umeak elkarrekin lasai egoteko leku bat.
- » Patioaz disfrutatzen beste modu bat.
- » Benetan zeozer interesgarria izatea.
- » Sortzen den proiektua egitea.
- » Ikasleen jolas libre hezitzaileagoa bultzatutako duen patioaren itxaropena.
- » Patioa leku atsegin bat bihurtzea.
- » Portxea berritu (kristalak)
- » Ume zoriontsuagoak izatea.
- » Natura sartzea, patioan, gelan.

- » Patio inklusiboa.
- » Denak lasaituko ginateke.
- » Naturan jolastu ahal izatea.
- » Patioa benetan guztientzako izatea.
- » Naturari ateak zabaldu.
- » Kirol ohikoak gutxitu.
- » Espazioa moldatzeko aukera, jolasak aldatzeko aukera, naturarekin harreman estuagoa izatea.
- » Inklusioa.
- » Futbolaren indarra galtzea.
- » Esperimentazioa gozatzearen puntutik.
- » Espazio desberdinak sortu.
- » Zementu gutxiago eta lur gehiago, enborrak, belarra,

- loreak eta baratza “laberinto haundi bat”.
- » Arazoak ematen dituzten kirolei garrantzia kendu.
- » Espazio naturalagoa, lurrarekin, egurra, harriak eta ura.
- » Naturarekin esperimentatu ahal izatea.
- » Patio aukera anitzeko leku bihurtzea.

## Kezkak

- » Proiektua aurrera ez ateratzea.
- » Espazio falta.
- » Ura ez badago ez dut beldurrik.
- » Udaletxeak denbora luzez luzatuko du aldaketa.
- » Noiz izango den.
- » Zelan mantendu dena?
- » Naturarekiko mantenimendua.
- » Denok gustura ez egotea emaitzarekin.
- » Mantenua
- » Gastu ekonomikoa.
- » Espazio aldatzea baina irakasleko eta familien mentalitatea ez.
- » Diru-laguntza falta.


- » Finantziarioa, diru falta.
- » Bertan behera geratzea.
- » Espazio falta.
- » Dirua.
- » Kanpoko jendeak proiektua izorratzea
- » Haurren kontrola.
- » Arazo ekonomikoak direla eta ezertan geratzea.
- » Ikaslea oinarri izan arren, irakasle, guraso, eta bestelako entitateen oztupoak.
- » Dirua nondik atera?
- » Dirua ez izatea.
- » Patio aldatzea behar dug, baina dirurik ez dugu jasoko.
- » Ez da egingo denbora laburrean.





#Futbola #Saskibaloia #Harrapaketa #Korrika #KirolAurutuaErdigunean  
#BestelakoJolasResidualak #Borroka #Lehiakortasuna  
#AdinenAraberakoSektorizazioa #TxikiakNeskakIzkinetan #NagusiakMutilakErdigunean

1. Futbola, saskibaloia: Gatazka asko, errespetu faltak, lehiakortasuna, istripuak, patioaren erdia baino gehiago hartzen dute, beste aukerarik ez dute ematen...
2. Txingo jolasa eta bestelakoak (hitz egitea, dantza, saltoka...): Haur Hezkuntzakoak haresian gora eskalatzen dute.
3. Tertulian, ezkutaketan: Kalekoak iraindu, ezkutuko bihurrikeriak...
4. Harrapaketa, korrika irten.
5. Txirrista, korrika: 2 urtekoek erabiltzen duten gunea, LHkoek ere sartu nahi dute, debekatuta duten arren.
6. Ziburuen erabilera: 2.maila arte erabili ditzakete, txikienek nagusiek espazioa konkistatzen dutela sentitzen dute. LHkoek leku honetaz gozatzeko aukera gutxi dute.
7. Behaketa puntua.
8. Jolas sinbolikoa, ezkutuko jolasa, ezkutalekua: bazterketak ager daitezke, espazio itsua da, kontrol eta ziurtasun eza.
9. Jolas arautua (futbola, esku pilota...) eta borrokak estalitako frontoian: jolasa borroka bihurtzen da, min hartzen dute, zarata larregi...
10. Esperimentazioa: zuhaitzen artean lurrarekin eta estoldatan, azken hauetan arriskutsua izan daiteke. Ez dago materialik.
11. Hitz egitea, kromoak aldatzea, ekintza lasaiak: bazterretan, izkinatan, leku izkutuen erabilera. Oso toki hotzak dira. Babesguneak edo esertzeko lekuak bilatzen dituzte (eskailerak, aterpeak, etxetxoa...).
12. Ping-pong mahaien erabilera (ezkutatu, salto, igo, jaitsi...): arriskutsua da, min hartu dezakete.



## ekintzak eta arazoak

Lurrarekin, urarekin esperimentatzea ikasleek behar dute, baina mantentze lanak eta guroasoen kezak, nola bideratu?

Mugikortasun arazoak dituzten haurrentzako egokitutako espazioak, nola bermatu?

Euria egiten duenean, non jolastu? Frontoia kaosa da eta umeez ez dute bertara joan nahi...

Hesia izan arren, kanpoko pertsonak sartzen dira patioan asteburuetan. (Alkohola edan, gorde...). Nola kudeatu?

Ezin dira material eramangarriak patioan utzi, adibidez, atxurra, mangrak...

Haur Hezkuntzako umentzat arriskuak dira kanpoko ateak.

Patioko lurra (asfaltoa) oso gogorra eta mingarria da.

Kilma, eguraldia... Zer egin eguraldi txarra dagoenean?



**Hausnarketa ondorengo  
kezkak, arriskuak eta beldurrak**



**2.saioa****SORKUNTZA - PROGRAMAZIOA**

SAIOAREN IRAUPENA: 2 ordu

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 30 -32 irakasle

10' Aurkezpena: 2.saioaren egituraketa eta helburuak, eta 1.saioan jasotakoaren balorazio laburra.

20' Dinamika I: elkarbizitarako patio hezitzaile bat eraikitzeko dekalogo. Zein ezaugarri izan behar ditu elkarbizitarako patio hezitzaile batek? Galder honi erantzuteko hausnarketatik abiatuz, talde txikietan dekalogo bat definituko da, patioaren eraldaketaren oinarri bihurtu nahiko dena.

60' Dinamika II: Ametsetako jolas-inguruneen irudikapena talde txikietan. Elkarbizitarako patio hezitzaile baten ezaugarriak asmatu eta jolas-ingurune berritzaileak eraikitzea du helburu.. Hutsetik abiatuta, maketa baten bidez adierazten dira talde bakoitzean irtendako ideiak.

30' Dinamika III: Talde bakoitzak sortutako jolas-ingurunearen aurkezpena eta bertan agertzen diren baliabide eta ezaugarrien azalpena. Proposamen ezberdinetan oinarrituta, segurtasunak, kontrolak eta eguraldiak sortzen dituen kezka eta gatazken inguruko hausnarketa.









# elkarbizitarako patio hezitzailearen dekalogoak

Irakasleak



## 1. proposamena

1. Berdeguneak izatea, gerizpe tokiekin.
2. Zirkuituak izatea (egurrezkoak adibidez).
3. Antzoki bat izatea, antzezlan ezberdinak egin ahal izateko (edo zonalde estalia).
4. Lur egokia eta segurua izatea, mina ez hartzekoa.
5. Ezintasunen bat duten ikasleei egogokitua izatea.
6. Parkour egiteko zonalde bat edukitzea.
7. Animaliak (oilok, untziak...) eta baratze ireki bat.
8. Patio koloretsua izatea.
9. Gune artistiko bat sortu, material ezberdinekin (harea, eraikitze materiala, margotzeko materiala...).
10. Jolas anitzei egokitutako patioa eta kirolerako txokoren bat.

## 2 proposamena

1. Inklusiboa izatea.
2. Espazio desberdinak – ekintza anitzekin.
3. Inguru berdea.
4. Portxeko espazio aprobetxatzea (jolaski / liburutegi bilakatu).
5. Espazio itxi gehiago.
6. Putzua/ibaia.
7. Ortua integratzea.
8. Txabola.
9. Rokodromoa.
10. Harea.

## 3. proposamena

1. Aniztasunari (pertsonekin, adin,...) erantzuna ematea.
2. Espazioaren kudeaketa egokia (mugatua ez izatea).
3. Natura gehiago eskaintzea eta zabaltzea.
4. Material ezberdinak izatea aukeran, esperimendazioa bultzatuz.
5. Jolas kompetitiboak murriztea eta kooperatiboak bultzatzea.
6. Espazioen zaintza eta arduren banaketa.
7. Birziklapena kontutan izatea, material eskaintzerakoan.
8. Segurtasun neurriak kontutan izatea.
9. Nere zikinkeriak nora bota.
10. Orokorrean arlo motorra, soziala (elkarbizitza), lasaitasuna, afektiboa bultzatzea...





# elkarbizitarako patio hezitzailearen dekalogoak

Irakasleak



## 4. proposamena

1. Segurua izan behar da.
2. Anitza materialetan
3. Adin ezberdinetako haurren beharretara egokitua.
4. Anitza proposamenak eskaintzerakoan.
5. Eguraldia kontutan izan beharko genuke.
6. Naturarekin lotura duena ere bai.
7. Irakasle, ikasle eta familien inplikazioa
8. H.H./ L.H.


## 5. proposamena

1. Aterpe gunee bat izatea (argitasuna izanda)
2. Patio mugatua kirol espezifiko edo arautuak egiteko.
3. Ikasleak zonalde goxoa eta itxia izatea (adib. kristalezko estalkia).
4. Baso zati bat (muinoak, borda tematikoak, ibaia...)
5. Dantzagunea, anfiteatroa.
6. Iturriak.
7. Frontoia.
8. Abentura parke bat.
9. Harea duen zonalde bat.
10. Kolunpioak, txirristak...





Irakasleak



Estalkidun anfiteatroa,  
 antzerkiak, dantza...  
 Atzeko aldean rokodromoa,  
 porteriak, kirol arautua.

Txirristak

Parkour gunea

Energia eolikoa

Aulkiak eta mahaiak, lasai  
 egoteko, kartetan jolasten...

Tontortxoak, obstakuluekin eskalatzeko,  
 azpitik pasatzeko tunela

Adierazmen librerako horma

Tirolina, zuhaitzen artean


Itzaldun gunea

Iturri batetik irtetzen den  
 erreka txikia, energia  
 eolikoarekin funtzionatzen du.  
 Altuera izango du erreka,  
 haurrek bertan jolasteko  
 (itsasontziak makilatxoak...)  
 Ahateak eta arrainak.

Haretokia

Baratza

Animalien etxola, oilotegia.  
 Eguzki plakak teiltuan,  
 energia lortzeko.







Enborrak, hareak, jolasteko elementu solteak

Rokodromoa

Bi solairu aterpean, eta bertan liburutegia kokatu beirazko itxiturearekin. Bigarren solairutik txirrista patiora irteteko

Zuhaitz autoktonoak

Etxetxea zuhaitzean, eta bertatik jaisteko txirrista

Adierazmenerako horma

Haretokia

Zubia

Lasai egoteko mahaiaik eta aulkiak

Altuera ezberdinetako muinoak

Erreka zeharkatzeko harriak

Erreka, arrainekin

Baratza

Patioko lurzorua belarrez estalita.



Armiarma sarea, egurrez osatutako egitura, oreka lantzeko, eskalatzeko...

Egurrezko egiturak, zabuak, sokak....

Baratza irekia

Iturria

Haretokia

Estalitako berdegunea, euria egiten duenean lasai egoteko

Gune altuagoa, txirristekin eta bertara igotzeko sokekin

Elkartzeko txokoak, hamaiketakoak jateko, egoteko....

Txoko moldagarria. Material soltea egongo da, aldatzen joango dena eta hurreko sortuko dute bertako jolasa material ezberdinekin (adreiluak, egurrak....)



Muino berdea patioaren erdigunean.

Tirolina

Haretokia iturriarekin

Egungo portxea, beiraz estalita eta bi solairutan banatuta. Liburutegia, lasai egoteko txokoak, etab.

Frontoia, ireki eta itxi daitekeena eguraldiaren arabera, estalkiarekin.

Estali daitekeen anfiteatroa, zirkunferentzia erdia osatzen duena eta eszenatokiarekin, lasai egoteko, dantza egiteko...

Babeslekuak, haimak.

Basoa, jolasteko egiturak, zabuak, oreka lantzeko, zintzilikatze, etab.

Jolas arauturako eremua (saskibaloia, futbola, tenisa...) goiko solairuan. Azpian laberintoa.





## FAMILIAK





**1.saioa****DIAGNOSIA - SORKUNTZA - PROGRAMAZIOA**

SAIOAREN IRAUPENA: 3 ordu

PARTE-HARTZAILE KOPURUA: 23-25 guraso

5' Aurkezpena: Diseinu-prozesuaren egituraketa

5' Dinamika I: espazioen gogorapenak

60' Eduki teorikoa

Aurkezpena – Diseinu prozesuaren egituraketa

Arkitektura pedagogikoaren oinarriak

Jolas-ingurune inklusiboak

Espazioa erronka sortzaile; arriskua, jolasa eta natura

20' Dinamika II: egunerokotasunaren mapa

Nola erabiltzen dugu gaur egun patioa? Zein arazo ditu? Zein gauza mantendu nahi ditugu? Zer aldatu nahi dugu.

Baliabidea: ortofotoplanoa + ekintzak/arazoak taula modura + kezka/ardurak beldurrak...

60' Dinamika III: Ametsetako jolas-inguruneen irudikapena talde txikietan.

Elkarbizitarako patio hezitzaile baten ezaugarriak asmatu eta jolas-ingurune berritzaileak eraikitzea du helburu.. Hutsetik abiatuta, maketa baten bidez adierazten dira talde bakoitzean irtendako ideiak.

30' Dinamika IV: Talde bakoitzak sortutako jolas-ingurunearen aurkezpena eta bertan agertzen diren baliabide eta ezaugarrien azalpena. Proposamen ezberdinetan oinarrituta, segurtasunak, kontrolak eta eguraldiak sortzen dituen kezka eta gatazken inguruko hausnarketa.




















## #KirolArautuaErdigunean #LasaiEgotekoTxokorikEz #FamilientzakoEspazioFalta #JolasAniztasunFalta #EsperimentaziorakoAukeraGutxi #MantenuFalta #BabesgunerikEz

**1. Kirol arautua (saskibaloia, futbola):** Erdialdean kokatuta dagoenez, inguratu egin behar da, ia gehienak mutilak, agresibitatea, diskriminazioa, jolasten ez dutenak babestu behar dira (txikiak, familiak, ...). Ez da inklusiboa, espazio gehiegi hartzen du, boterea adierazten duen lekua da, hezkidetzaz ikuspegitik ez-aproposa, espazioaren konkista lehia bihurtzen da, jolas mugatua eta definitua da.

**2. Zabuaen erabilera (orokorra), egitura finkoak:** adin bereizketa, monotonoak, euria egiten duenean ez daude babestuta, torloju askeak, mantenua behar dute, oso gutxi daude eta oso eremu txikia da, ez dago adin ezberdinen arteko interakziorik, esperimentaziorako aukerarik ez...

**3. Zabuen erabilera (txikienentzakoak, 2 urtekoen eremua):** putzuak eta itokinak sortzen dira, tradizionalak, baztertuta, erabilera gutxi, oso espazio txikia da, itxiegia, familien elkargune ere bihurtzen da, baina txiki geratzen da, adin ezberdinetako haurrak gerturatzeko dira, gorputzarekin esperimentatzeko eremua.

**4. Naturaren esperimentazioa (zuhaitzak, lurra, hostoak):** oso aukera gutxi, zuhaitzetako adarrak arriskutsuak izan daitezke, zikintasuna, baztertutako lekuak dira, baratza itxita egoten da, katuak arazo dira, zikintasunarekin jolastu behar izaten dute.



## ekintzak eta arazoak

#KirolArautuaErdigunean #LasaiEgotekoTxokorikEz #FamilientzakoEspazioFalta  
#JolasAniztasunFalta #EsperimentaziorakoAukeraGutxi #MantenuFalta #BabesgunerikEz

**5.** Esku pilota: ez dago lekurik, frontoia itxita egon ohi da eskolaz kanpoko orduetan, portxea erabili nahi izaten da hormak dituelako, baina leku gutxi dago.

**6.** Hitz-egin, elkartu: ez dago leku aproposik, estutua, esertzeko eremurik ez, mahaiak eta aulkiak falta dira, euritik babestutako lekuak, talde txikietan biltzera gonbidatzen duten aukerak falta dira...

**7.** Ezkutatu, intimitatea: oso leku gutxi, egitura finkoak erabiltzen dira. Ezkutuko txokoak arazo dira, zaintza gabe, helduen begibistatik urrun eta aparte gelditzen dira. Portxea ez da eroso, hotza da eta txiki geratzen da euri egunetan.

**8.** Ping-pong jolasa: eskolaz kanpo oso gutxi jolasten da, ez dute materiala eskuragarri, haur kopuru mugatu batek jolas dezake.

**9.** Etxekolanak egin: ez dago leku aproposik.

**10.** Eskalatu, igo jaitsi: ez dago arazorik.

**11.** Korrika egin: eremu mugatuak daude, beti norabide batean egin behar da, libre geratzen diren eremuetan.

**12.** Borrokatara jolastea: ez dago beste aukerarik.



## ekintzak eta arazoak

Komunak falta dira

Iturriak ez du funtzionatzen, ez dago urik

Asteburuetan erabiltzen diren eremuak, kanpotik salto egiten dute, hesia gainditu eta barruan sartuz.

Familientzako elkarguneak falta dira: ez dago elkartzeri, hitz egitera, taldean egotera bultzatzen duen espazio eta baliabiderik.

Euria egiten duenean, ez dago leku babesturik.

Babesik gabeko leku ezkutatuak daude, eremu itsuak.



**Hausnarketa ondorengo  
kezkak, arriskuak eta beldurrak**





Zientzia eta esperimentazio txokoa, zuhaitzen azpian, egurrezko mahaiak, aulkiak, balantzak, ontziak, lupak, etab.

Rokodromoa, ezkutatzeko txokoa, tunela, etab. duen egitura.

Babeslekuak, egoteko egiturak.

Espazioaren erdigunean kokatutako hiru dimentsiotako egitura konplexua, eskalatzeko, zeharkatzeko, azpitik pasatzeko, txirristatik botatzeko, babesteko, igotzeko, jaisteko, behatoki bezala erabiltzeko... Berdegunearekin inguratuta.

Musikarekin esperimentatzeko horma eta aurrean lorategia.

Oreka lantzeko egitura

Antzezlekua adierazmenerako


Baratza irekia, zientzia txokoarekin erlazionatuta, bertan jasotakoa esperimentatzeko.

2-3 urtekoentzako eremua babestua eta definitua, bereizteko muga jolasa izanik (bambua, egurra, etab. erabilita). Aterpea, mahai txikia, babeslekua, haretokia, urarekin esperimentatzeko txokoa...

Altuera ezberdinetako egitura zilindrikoak, eserita egoteko, igotzeko, oreka lantzeko...

Igo eta jaisteko muintxoak

Erreka



Belar edo material artifizialdun muinoa, euria egiten duenean estalita dagoena, rokodromoarekin eta txirristarekin. Tunela eta kobazuloa ere izango du ezkutatzeko eta babestuta lasai egoteko.



Sokazko egiturak zuhaitzen artean jolasteko

Baratza

Urarekin jolasteko egitura

Harea duen lur zatia

Laberintoa


Kirol arauturako eremu mugatua albo batean (fútbol, saskibaloia...)


Zuhaitzen azpian esertzeko eta igotzeko egiturak

Etxetxo

Eserlekuak eta mahaiak zuhaitzen azpian lasai egoteko.







Zuhaitzak enborren artean pasarelak daudelarik, jolas motorra bideratzeko.

Zuhaitzak eskalatzeko rokodromoarekin eta etxetxoarkein.

Harmailak, eszenatokia, asanbleak egiteko, lasai egoteko...

Tirolina

Xilofonoa, musika esperimentatzeko

Tipiak, babeslekuak jolas sinbolikorako.

Haretokia estalkiarekin hobeto mantendu ahal izateko.

Berdegunak eta bidexkak.

Eserlekuak eta mahaiak lasai egoteko, asanbleak egiteko, aterpearen azpian.

Urarekin jolasteko eta esperimentatzeko eremua, hodiak, trasbaseak...

Jolas arauturako eremua albo batean. Material soltea gordetzeko kutxak (uztaiak, sokak...)





\*Jolas arautua frontoian egitea proposatzen da, zabalik egongo delarik.

## Hausnarketarako abiapuntua

- > Jolas arautura bideratutako espazioa eraldatzeko beharra (futbola, saskibaloia, etab. beste kokapen batera bideratu). Izan ere, futbolak hartzen duen garrantzia medio, honen inguruan sortzen diren gatazka eta arazoak, zein islatzen dituen erlazionatzeko moduak ez dira jolasa mugatu eta debekatzearekin ekidingo. Horretaz gain, lanketa ikasleekin egitea ezinbestekotzat jotzen da.
- > Espazio irekiaren artikulazioa (natura, egitura ezberdinak, eserlekuak...), egungo patioa gogorra, hotza eta irekiegia da, babesgunerik gabe, esperimenezko aukerarik gabe eta haurrak korrika egitera bideratzen ditu, babesgune bakarrak izkina itsuetan kokatuz.
- > Patioaren naturalizazioa: lekuko kliman oinarrituta, natura eskolara gerturatzea eskatzen da, zuhaitz autoktonoak, berdeguneak, enborrak, harea...
- > Egungo patioak ez ditu jolas-mota guztiak ahalbidetzen, jolas sinbolikorako, jolas manipulativorako eta sentsorialerako baliabideak falta dira gehien bat.
- > Hezkuntza-prozesua kanpo espazioetara bideratuz, esperimenezko baliabideak falta dira: haretokiak, urarekin esperimenezko aukera, material soltea (enborrak, makilak...).
- > Haurren zein familien arteko elkarbizitza eta elkarrekintza bideratzen duten egituren beharra (eserlekuak, mahaiak eta aulkiak, babesguneak, harmailak, etab.)
- > Espazio txikien beharra, haurren parametroetara egokitutako egitura eta baliabideak (etxetxoak eta egitura txikiak, gordetzeko, babestuta sentitzeko, espazioak konkistatzeko...)

- > Sormena eta jolas kooperatiboa bultatzen duten egituren beharra: egitura abstraktuak eta ez definituak jolas gisa (enborrak, sokak, harriak...)
- > Jolas motorra modu anitzetan ahalbidetzea proposatzen da: tirolinak, eskalatzeko egiturak, oreka egiturak, saltoak, txirristak, sokak...
- > Bitarteko espazioen beharra euri egunetarako. Ikasgelatik kanpo, aisialdi funtzioa bete dezaketen barruko espazio lasaiak behar dira, kanpokoekin erlazio zuzenean. Adibidez, liburutegia, mahai jolasetarako eremua...Gaur egun frontoiak gatazkak sortzen ditu, borrokak, zarata....Haurrei ez zaie bertan egotea gustatzen.
- > Aterpeen beharra: kanpo espazioen erabilera hobea bermatzeko, euria egiten duenean aterpe azpian jolastu ahal izatea nahi da. Modu berean, udara begira, zuhaitzen itzala aprobeztatzea proposatzen da.
- > Patioa auzora zabaldu nahi da, auzoko espazio publiko bihurtuz eta eskolaz kanpoko erabilera indartuz. Gizarte etxearen ordutegi berdina izatea planteatzen da, mantenu eta zaintza arazoak ekiditeko.
- > Patioa naturalizatzeak kezka sortzen du irakasle askoren artean, haurrak zikintzea, buztitzea, arriskuak, mantenua...Gurasoen aldetik, berriz, konponbideak bilatu behar direla pentsatzen da: beroki egokiak eta euritako boten erabilera, ikasgelan etxeko zapatilekin ibiltzea...
- > Hesiak birplanteatzea: muga fisikoak jolas-elementu bihurtzea (musika lantzeko hormak, arbelak, etab.) adin-ezberdinetako ikasleen arteko interakzioa bermatuz, baina bakoitzak bere leka aurkitu eta bertan ongi sentitzeko eskubidea izanik. 2 urteko haurrentzako kanpo espazioen gertutasuna eta babesa.



Saio ezberdinetan partekatutako erreferentzia multzoa





Saio ezberdinetan partekatutako erreferentzia multzoa





Saio ezberdinetan partekatutako erreferentzia multzoa





Saio ezberdinetan partekatutako erreferentzia multzoa





Prozesuan zehar parte-hartu duzuen ikasle, irakasle  
eta guraso guztiei, hausnarketa eta gogoetak  
partekatuz, eta saio ezberdinetan ideia eta  
proposamenak transmitituz,  
**ESKERRIK ASKO**

nondik arkitektura eta hezkuntza biltzen dituen espazioa da. Pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin, inguratzen gaituzten espazioak eraldatzeko estrategiak garatzen ditu, eta hezkuntza-erakinetan espezializatzen da.

nondik azken emaitzaren aurreiritzi eta irudi oro baztertuz, sortze-prozesuan oinarritzen den lan-metodologia da. Egin beharreko galderak zeintzuk diren argituz, sormenean eta esperimendazioan oinarrituta ekiten zaio hobekuntzarako bideari. Erabiltzaileak dira proiektu ororen funtsa, eta erantzun anitzak bilatu nahian, jakintza-alor ezberdinetako adituen elkarlana sustatuz sortzen dira prozesu bakoitzerako lan-taldeak.

nondik galdera globaletan oinarritzen da tokian tokiko erantzunak aurkitzeko. Nondik galdetzen denean, “zein lekutatik” edo “zein bidetatik” esan nahi da: etorkizunera begira aurrerapauso bat eman ahal izateko, bide ibiliek utzitako arrastoaren garrantzia aintzakotzat hartzea ezinbestekoa izanik.

nondik S.C.  
I.F.Z: J01551480

Ahinitze Errasti Etxeberria  
Alejandro González Pérez

[info@nondik-lab.com](mailto:info@nondik-lab.com)

Eskola kalea 10, 13. Bulegoa  
01001 Vitoria-Gasteiz

[www.nondik-lab.com](http://www.nondik-lab.com)



nondik

[www.nondiklab.com](http://www.nondiklab.com)